

Kezkaz beterik udazkenaren hasieran

Andoainen, Urnietan eta Gipuzkoan oro har PCR bidezko probatan kasu positibo ugari eman dira, azken egunetan / 2-5

AIURRI

Euskalduna taldea lehian murgildu da

Ziurgabetasun handiko denboraldia izango da federatu mailako taldeentzat. Euskaldunako denboraldiaren hasiera, Salva Parada lehendakariaren ahotan / 12




Koronabirusa:
Nahikari Sanchez
Urnietako
erizain gazteari
elkarrizketa / 5



Euskaraldia:
Ahobizi eta
Belarriprest modura
aritzeko hilabete
eskas falta da / 8-9

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia
estreinatu dugu
igandean: goizeko
hiruretan, ordu
biak izango dira.



Kultur jarduerak:
Urnietan astebururako
iragarrita zeuden
hitzorduak bertan
behera utzi dituzte / 5



HONDAR AHOAK

TELESAIL BERRIA, AZAROAN

 GURE FIKZIOA LEHENA



San Juan plaza, asteazken eguerdian. AIURRI

Kutsatuen igoera handiak gizarte bizitzan eragingo du

Gipuzkoan eta Beterri-Buruntzan PCR bidezko probatan atzemandako kasu positiboen gorakada handia ematen ari da. Jaurlaritzatik eta Aldunditik datozen adierazpenak entzunda, gizarte bizitza mugatzeko neurri zorrotzak iristear dira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Astearte arratsaldean Gipuzkoako alkate guztiak bilera batera deitu zituen Markel Olano Ahal-dun Nagusiak. Bilkura horren goiburuak iragarpen bat iradokitzen du: "Harreman sozialak ahalik eta gehien mugatzeko deia egin du Aldundiak". Goiz horretan bertan Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak norabide beretsua marraztu zuen: "Kasu batzuetan autonomi erkidego osorako hartutako neurriak izango dira, beste kasu batzuetan

herri mailakoak izan daitezke eta behar izanez gero lurralde historiko mailakoak". Alegia, aukera guztiak zabalik daudela. Jaurlaritzak laster jakingo du LABI (Larrialdiei Aurregiteko Bidea) delakoan proposatutako

**SEMAFORO GORRIA
URNIETAN:
22 KASU ABUZTUAN,
43 KASU IRAILEAN,
87 KASU URRIAK 1-20**

neurriak aurrera eramateko onarpen juridikoa duen. Urkulluk gidatutako batzorde horretan hainbat neurri murriztaile ezartzea aipatzen da. Besteak beste, ekitaldietan parte hartzea erdira murriztea, bilerak sei lagunera mugatzea edota ostalaritzako ordutegien itxiera aurreratzea.

Urnietako Udalak bere aldetik erabaki irmoa hartu du. Urriaren 20an hasita, Udalaren eskumeneko jarduera eta ekitaldi ia guztiak eten egin dituzte. Osakidetza iristen diren datuak

onbideratu arte, gizarte bizitzari lotutako jarduerak eta ekitaldiak etetea erabaki dute. Urnietan, gainera, taberna bat baino gehiago itxi egin behar izan dituzte COVID-19aren agerpenagatik.

**SEMAFORO GORRIA
ANDOAINEN:
51 KASU ABUZTUAN,
74 KASU IRAILEAN,
87 KASU URRIAK 1-20**

Andoaingo Udalak aurreko ostiralean lasaitasunerako mezua zabaldu zuen, ohar bidez. Udal batzarraldiaren amaieran prebentzio neurriak zorrotzeko deia luzatu zuen alkateak. Baina gaurkoz neurri zehatzik ez da ezarri, ezta iragarri ere.

Andoaingo azken 14 egunetako intzidentzia metatua 500etik gora pasa da, eta beraz semaforo gorria piztu da. Urnietan kopuru hori bikoiztu da. Gizarte bizitza gehiago murriztuko duten egunak iristear dira.

Igoera nabarmena

URRIA	12	13	14	15	16	17	18	19	20
ANDOAIN	1	11	11	6	11	10	5	1	5
URNIETA	1	1	4	8	5	13	13	14	12



Jorge Segurado Urnietako alkatea, asteazken eguerdian. AIURRI

"Herritarren kolaborazioa eskatzen dugu, guztion ardura delako"

JORGE SEGURADO URNIETAKO ALKATEA

"Urnietan egoera kezkarria da. Eta Udaletik herritarren kolaborazioa eskatzen dugu. Azken egun hauetan neurri batzuk hartu ditugu, nabarmenenak, jende mugimendu handia sortzen zen udaletxeko zenbait instalakuntzetan murrizketak ezartzea, eta parketako ordutegia murriztea. Horiekin batera, ostalaritzaren sektorean gutuna banatu dugu laguntza eskainiz eta kolaborazioa eskatuz, eta aldi berean, herriko ikastetxeetan musukoak banatu ditugu. Igandera arte egongo dira indarrean neurri horiek, baina ez dugu baztertzen luzatzea. Osakidetzaekin harremanetan gaude, informazioa etengabe ari gara eguneratzen. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera telematikoa egin genuen, eta alde horretatik ere zuzenak dira erakundeen arteko harremanak. Berrito esango dut, Udaletik guztion herritarren kolaborazioa eskatzen dugu, guztion ardura delako. Ohiko prebentzio neurriak zorrotz bete behar ditugu, harreman sozialak ahal dugun neurrian murriztu, distantzia sozialak mantendu, musukoa erabili, eskuak garbitu... Denok ere neurri horiek txukun bete ahala espero dugu kutsadura murriztea".



Aldundiko Olanoko eta Asensio Udalen ordezkariak bildu zirela, asteartean. ALDUNDIA

Harreman sozialak ahalik eta gehien mugatzeko deialdia

Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanok lurraldeko alkateekin batzartu zen, astearte arratsaldean

Erredakzioa ANDOAIN

Bileran parte hartu zuten Mainer Lainez Andoaingo alkateak eta Jorge Segurado Urnietako alkateak, Gipuzkoako 68 alkate gehiagorekin batera. Markel Olanok babesa eta lankidetzak eskaini zien pandemiaren ondorioei aurre egiteko eta COVID-19ren hedapena mugatzeko: "Inoiz baino beharrezkoagoa da erakunde maila desberdinen arteko lankidetzak, beti ere Osakidetza-rekin koordinatuta. Osasun arloko murrizketak eta gomendioak betetzeko orduan inoiz baino zorrotzagoak izan behar gara eta errespetarazi egin behar ditugu, gure eskumenen esparruan".

Gizarte harremanak murrizteko deialdia

Olanok azaldu zuenez, "gizarte gisa, harreman sozialak ahalik eta gehien mugatuta soilik lortuko dugu kasuen gorakada

geldiaraztea eta kutsatze lerroak moztea. Orain egiten dugunaren arabera izango da datozen asteetako bilakaera. Egungo egoerari buelta emateko, konpromiso eta esfortzu komunitarioari eusteko unea da, horrela bakarrik lortuko dugu eta kolektibo ahulenen bizitzak babestea".

Eusko Jaurlaritzaren neurri berriak –edukiera % 50era murriztea, bilerak sei lagunera murriztea, ostalaritzako ordutegiak murriztea– auzitegiek berrestearren zain dauden bitartean, administrazio guztiek ahal dugun guztia egiteko unea dela adierazi zuen Olanok, "jendetza, festa eta gizarte-topaketa jendetsuak" saihesteko.

Olanorekin batera bileran izan ziren Jose Ignacio Asensio bigarren diputatu nagusiordea eta baita Maite Peña Gizarte Politikako diputatua ere.



IREKIA

"Aukera guztiak zabalik daude"

20/10/20 Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak asteazkeno egiten duen agerraldian egin zuen iragarpena: "Ez dago erabaki bat bazterrerara utzita. Kasu batzuetan autonomi erkidego osorako hartutako neurriak izango dira, beste kasu batzuetan herri mailakoak izan daitezke eta behar izanez gero lurralde historiko mailakoak".



IREKIA

"Datuak hobetu behar ditugu"

20/10/16 Gotzone Sagardui Osasun sailburua arduratuta agertu zen pandemiak Euskadin azken egunotan utzi dituen datuak ikusita. Egoera "kezagarria" dela aipatu zuen, eta prebentzio neurriak hartzerara deitu zuen gizartea: "Datuak hobetu beharko ditugu bestela beste neurri batzuk hartu beharko ditugu"

"Topaketak mugatu behar dira"

20/10/16 Ignacio Garitano Eusko Jaurlaritzako Osasun sailleko Zaintza eta Kontrol programaren koordinatzaileak oso argi hitz egin zuen: "Kasuak igo dira azken egunetan eta arrazoien artean familia eta lagun arteko bilerak daude. Beharrezkoa da topaketak ahalik eta gehien mugatzea".



IREKIA



Lekaio Kultur Etxea. UDALA

Jarduera eta zerbitzuen etenaldia Urnietan

Ikastaroak eta kultur jarduerak bertan behera geratuko dira osasun datuak onbideratu arte

Erredakzioa URNIETA

Udalaren ardurapeko formakuntza ikastaroak eta astebururako aurreikusita zeuden kultur jarduerak etetea erabaki du Urnietako Udalak. Saroben egitekoak ziren bertso eta musika ikuskizuna edota ipuin kontaketa saioa bertan behera geratu dira, beraz. Neurriak, halaber, eragin zuzena izan du ikastaroetan parte hartzen duten dozenaka herri-tarregan. **Ikasteko gela, kiroldegia, Sarobe, Udal musika eskola, frontoia eta Gaztelekuak** itxi egin baitituzte.

Denda Berriko jarduerak ere bertan behera geratu dira. Taberna, ile-apaindegi eta masajista zerbitzuei eutsiko die.

Liburutegiari dagokionez, liburuak maileguan hartzeko zerbitzua bakarrik mantendu dute.

Bertan, Lekaio eta **Gazte Informazio Puntua** zerbitzuei dagokionez, harremanetan jartzeko modu telematikoa lehenesteko eskatu diete herritarrei.

Haur parkeak iluntzeko 20:30era-ko ixten dituzte.

Bonoen salmenta, ere tokiz aldatu dute. Lekaion edo Gazte informazio puntuan eskura daitezke.

Neurri hauek behin behinekoak dira. Osasun Saitetik datozen datuen garapenari lotuta daude.



"Egoera honetan ardura norberarengan dago"

OLATZ SARASOLA UGALDE ERIZAINA

24 urteko urnietar gaztea da, eta Donostia Unibertsitate Ospitalean erizain lanetan ari da anestesia eta bizkortze unitatean

Jon Ander Ubeda URNIETA

Pandemiak goitik behera aldatu du ospitaleen antolakuntza. Zentratu aldatu da zure lanaldia, hilabete zail hauetan?

Gure lana zirujia batetik aterako pazienteak artatzea zen, pandemia iritsi zen arte. Behar zituen zainketak eskaintzen genizkion ebakuntzatik irteerako pertsona horri. Martxoan ospitaleko unitate asko berregokitu behar izan ziren, COVID-19arekin kutsatutako pertsonak asko iristen hasi zirelako. Tokia egin behar zitzaion, horiei guztiei.

Saso honetan, zirujiatik aterakoak artatzeaz gain, gaixotasun koronarioa duten eta zainketa intentsiboan dauden pazienteak zaintzea dagokigu.

Lanaldian, gure egunerokoan aldaketa handia eman da. Maila fisikoan eta pertsonalean jauzi handia dago. Horrelako pazienteekin lan egitera ez gauden ohituta. Formakuntza jaso dugu, eta langileon artean ezagutza partekatu behar izan dugu. Aldaketa handia da, betiko lana ez dugulako alde batera utzi. Egoera berrira egokitzen asmatzen ari gara, eta kasu guztietan helburua berdina da: gaixo bakoitzari ahalik eta zainketarik onena eskaintzea. Egoera honetara iritsita, zailtasun guztien



Olatz Sarasola Ugalde urnietarra. AIURRI

gaintik pazienteak jarri behar dugu erdigunean.

Eta lanetik ateratzean nola bizi duzu gizarte osoari eragiten dion osasun alarma egoera?

Lanean ez dugu beste konturik, eta lanetik kanpo ere eztaba-dagai bakarria dagoela dirudi.

"GURE ALDETIK DENOK JARRI BEHAR DUGU ZERBAIT, GUTXI BATZUK DENA EMAN EZ DEZATEN"

Telebista edo irratia piztea eta egunkaria irakurtzea besterik ez dago. Politika eta pandemia, besterik ez dagoela dirudi. Kautiko samarra da dena. Bizi dugun egoera zaila da denontzat. Osasun arloko langileok oso gertutik bizi dugu pandemia,

"OSPITALEAN BIRUSAK JOTA DAGOEN PAZIENTE ASKOREN EGOERA OSO ZAILA DA"

eta maiz larrituta sentitzen gara. Lanetik kanpo gauzak ondo egin nahi ditugu. Saiatzen naiz gertukoie eta etxekoie jokabide on hori transmititzen, baina ez dakigu ondo non dagoen muga. Batzuetan zorrotzegia naizela uste dut, eta besteetan malgugo jokatzeko dut. Kontraesanak sortzen zaizkit, horrelakoetan. Beldur pixka bat badut ere, gauzak hain ondo egin nahi izatearekin buruhausteak sortzen zaizkidalako.

Urnieta azken egunetako kasuen gorakadarekin kezka berezia dago. Zein da zuk egiten duzun interpretazioa?

Zaila zait galdera horri erantzutea. Baina hausnarketa egin behar genukeela iruditzen zait. Argi dagoena da kutsatze kopurua nabarmen handitu dela, gorantz doa gainera. Eta kutsatzea etxe barruko esparruan, aisialdian edo kirol jardueran eman daiteke. Aisialdiara lotuta dago ostalaritza, sozializatzeko guneak diren heinean. Lasaitu egin gara aisialdiari lotutako jardueretan, eta horrelakoetan musukoa ez da behar bezain ondo erabiltzen. Kutsatzeko arriskua hor areagotzen da.

Kate bat dela ikusten ari gara, eta norberak bere katea osatzen du lanera edo ikastetxera doanean. Kate hori ez da inoiz eteten eta alde batetik edo bestetik beti norbait kutsatzen da. **Zein mezu zabaldu nahiko zenieke herrikideei?**

Ardura norberarengan dagoela. Badut esaldi bat buruan: "Gure aldetik denok jarri behar dugu zerbait, gutxi batzuk dena eman ez dezaten".

Bizi dugun egoera kritikoa da, eta guztiok dugu zeregina. Denon artean egin behar dugu

aurrera. Batzuk ez dute hainbeste egingo, baina denen aldeko jokabidea ezinbestekoa da egoera zail honetatik ateratzeko. Inork ez duelako udaberriko konfinamendu egoerara itzuli nahi.

Ezezagutza handia antzematen duzu benetan errealitatean gertatzen ari denarekin? Oro har, gizartea jakitun al da jende asko sufritzen ari dela?

Galdera interesgarria da, eta horixe bera pasa izan zait burutik denbora tarte honetan. Gertatzen ari den guztiarekin, zenbaiten jokabidea ulertzea zaila egiten zait.

Ezjakintasun handia dagoela, ondorio horretara iritsi naiz. Osasun arloko langileok aurrez aurre dugu pandemia, gure begiekin ikusten dugu egunero birusaren ondorioz gertatzen ari dena. Eta ikustea eta entzutea ez da gauza berdina. Kutsatzen ari diren pertsonen egoera gure begiekin ikusten ari gara. Gorantz egin du, gainera, kutsatuen kopuruak.

Bestalde, zainketa intentsiboan dagoen jendea ez da soilik adinekoko. Gazteok, oro har, uste dugu birusak eragin apalagoa duela gudan. Eta ez da horrela. Beldurra galtzen ari garela dirudi. Eta, azkenik, gazteok ez dugu ahaztu behar kutsatzeak ondorio larriak eragin ditzaizkeela helduagoak direnengan: gurasoak, aiton-amonak... Guregan bakarrik ez, besteengan ere pentsatu beharra dago.

Ospitalean birusak jota dagoen paziente askoren egoera oso zaila da. Gaixotasuna larria da, eta kasu batzuetan ondorio larriak eragiten ditu. Gutxien espero dugunean, gainera, gertuko norbait pasako da egoera zail horretatik.



Aiurri.eus gunea, eguneroko albistegia

"Mezua argia eta zehatza da: zentzuz jokatzea"

NAHIKARI SANCHEZ ERIZAINA

23 urteko gaztea aski ezaguna da Urnietan. Pandemiaren hasieran lehen lerroan aritu zen ospitalean lanean. Lehen arretan ari da orain. Kezkaz bizi du egoera

Jon Ander Ubeda URNIETA

Osasun arloko profesionala zara, Nahikari. Egun hauetan positibo ugari ematen ari dira Urnietan eta inguruko herrietan. Zer etortzen zaizu burura datu horiek ikustean? Kezka, beldurra, amorrua... Positiboaren kopuruak gora egin ahala, ezin dut ukatu nere kezka handituz doala. Benetan beldurgarriak diren datuetaz ari gara. Azkenaldian buruari buelta asko eman dizkiot honen inguruan zentzuzkoa den irtebideren bat atera nahian, baina ezin. Hiru hilabeteko konfinamendua zailantzan jarri dut eta guzti, benetan etsigarria!

Egoera txar batek eragin zuzena du ospitaleengan. Zuk udaberriko esperientzia zaila lehen lerroan bizi izan zenuen...

Dudarik gabe, positiboaren igoerak osasun arloan duen eragina zuzena da. Geroz eta positibo gehiago, orduan eta jende gehiagok beharko ditu osasun sistemak eskaintzen dituen baliabideak. Ondorioz, osasun sistema kolapsatzeko arriskua handiagoa da. Pentsatze hutsarekin... Aipatu bezala, udaberriaren ospitalean "lehen lerroan" igaro banuen ere orain lehen arreta mailan nago lanean, osasun zentroan. Lehen arreta mailako egoera ez da erraza, izan ere, izenak esan



Nahikari Sanchez erizaina astearte goizean, Oiarzongo pilotalekuan. AIURRI

bezala, edozein egoeraren aurrean lehenengo jo behar den atea da, osasun zentroa alegia. Mirestekoa da lehen arreta mailan egiten den lana, askotan baloratzen ez dena eta haren garrantzia azpimarratu nahiko nuke. COVID-19a iritsi aurretik lan ugari bazegoen

"ARDURAZ JOKATU BEHAR DUGU. GURE BURUA ZAINDUZ INGURUKOAK ZAINDUKO DITUGU"

ere, PCR probak egin beharrak lan karga areagotu du. Izan ere, egunero PCR-ak egiten ditugu eta positiboaren igoerarekin geroz eta gehiago, hala nola, sintomak dituen jendearekin, positiboaren kontaktuak dituztenekin... Gainera karga horrek askotan tentsioa

"ERREFLEXIO HAU EGITEA ESKATZEN DUT: NIRE INGURUAN ZER EGIN DEZAKET IGOERA GERARAZTEKO?"

eragiten die arreta maila guztiko profesionalari. Neke fisikoa zein psikologikoa nabarmena dugu, egunerokotasunean. Nik neuk orain arte ez dut oporren beharra inoiz sentitu, eta neke hori aurten sumatu dut.

Eta zein aurrikuspen egiten duzue?

Urritik aurrera hilabete zailak aurreikusten ziren, gripea tartean zelarrik. Gaurkoz, aurreikuspen guztiak betetzen ari dira. Datozen hilabeteak ere gogorak izango direlakoan nago. Horregatik ezinbestekoa da guztiok zentzuz eta arretaz joatzea.


Sentsibilizazio handia behar da oraindik. Zein mezu zabalduko zenuke zuk?

Mezua argia eta erraza da: zentzuz jokatzea. Bakoitzak bere buruarengatik egin nahi ez badu ere, besteengatik egin dezala. Jakina da COVID-19ak jende helduaren gain duen efektua gazteengan duenarena baino okerragoa dela. Baina heldua izatea ez da arrisku faktore bakarra, izan ere, badago gaixotasun kronikoak dituen jende gazte ugari ere. Beraz, zentzuz joka dezagun: 80 urteko zure amonarengatik, 42 urteko zure bizilagun diabetikoarengatik, arnas gutxiegitasuna duen 60 urteko zure lagun minarengatik... zurengatik eta zure ingurukoengatik, denon artean, zaindu gaitezten. Gure burua zainduz ingurukoak zaintzen baititugu.

Irakurlea barne erreflexio bat egitera bultzatu nahi dut: nire egunerokotasunean zer alda dezaket positiboaren igoera hau gerarazteko?

Gazteak daude maiz jomugan. Zeu gaztea zara. Iritzirik ba al duzu horren inguruan?

Azkenaldian gaztea, parranda eta COVID-19a esaldi berean entzuten ari naiz. Egia da positiboaren



Argazkia apirilkoa da. NAHIKARI

Lehen lerroan

"Pazienteen etxeratzeak eta heriotzak, bi errealitateak ikusteko aukera izan dut" izenburupean elkarrizketa gogoangarria eskaini zion Aiurri astekariari, 2020ko apirilean.

kopuruak gora egin duela gazte jendearen artean, eta normaltzat hartzen ari da gaztea izateagatik hain famatu egin diren "ez festa" horietan kutsatu zarela. Kasu batzuetan gazteen arduragabekeriak positiboaren gorakadan eragina izan duela ezin da ukatu, baina bestalde gazte ardurasu asko dago. Orokortasun hori gehiegizkoa da. Gazte izateagatik ez duzu arduragabea izan behar, eta ez zara zertan taberna batean kutsatu behar.

23 urte ditut eta ezagutzen naute badakite lagunekin irtetea oso gogoko dudala. Baina orain ezin da, onartu behar den errealitate bat da.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiko, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: **BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

w w w . a i u r r i . e u s



Urnietako
udala

POSTONTZIA

SARE URNIETA

Resolution. Presoak etxera!

Resolution. Irtenbidea.

222 preso. Horietatik, 9 baino ez Euskal Herriko kartzelatan. 18 larriki gaixorik daude, eta 55 urtetik gorakoak %20 dira. Baldintzapeko askatasuna salbuespenik gabe aplikatuko balitz, 80 bat aske leudeke.

Urte luzez urrundak, halaxe jarraitzen dute gaur egun ere: %44, preso kopuruaren ia erdia, 1.100-600 kilometrora dauden presondegetan. Eta bakartuak, are pandemia garai honetan. Hainbat espetxetan, bisitak eta aurrez aurreko komunikazioak eten dituzte. Ama edo aita, edo biak gatibu dituzten 100dik gora haur daude, eta sei hilabete baino gehiago daramatzate horiek ikusi gabe.

Indarrean dagoen espetxe-politikaren zertzelada gutxi batzuk dira, eskubide-urratzailea, krudela eta mendekatzailea den espetxe-politika, hain zuzen ere.

Hari-mutur ugari ditu elkarbizitzak, baina ezin izango da erabat eraiki eta sendotu horiek guztiak harilkatzeko erabaki irmorik ezean. Azken asteetan zenbait preso lekualdatu dituzte; aringarria izango da

ESPETXE-POLITIKA BERE OSOTASUNEAN INDARGABETZEA PREMIAZKOA DA



senideentzat ehunka kilometro gutxiago egin behar izatea astebururo, espetxe-politika bere osotasunean indargabetzea premiazkoa da, ordea.

Horixe aldarrikatuko dugu larunbatean. Eta pentsamolde eta ideologia ororen gaintetik, manifestazioan parte hartzera dei egiten diegu herritarrei, denon bultzada eta inplikazioa ezinbestekoa izango baita egoera iraultzeko.

Resolution. Irtenbidea.
Presoak etxera!

DENON BULTZADA ETA INPLIKAZIOA EZINBESTEKOA IZANGO DA EGOERA IRAULTZEKO

POSTONTZIA

AEK EUSKAL HERRIA

20-21. ikasturtean Korrikarik ez; 2022ko udaberrian herriz herri igaroko gara berriro

22. Korrika 2022. urtera atzeratu dugu. Erabaki latza, euskararen aldeko ekitaldirik jendetsuena eta zirrarragarriena ez dugulako orain izango, eta badakigulako euskararen aldeko bultzada ezin dela apaldu; gainera, Korrikak helburu ekonomiko zehatza dauka (AEKren euskaltegi-tako lana indartzea) eta atzeratzeak kalte egingo dio lan horri, zalantzarik ez.

Azken hilabeteotan, gauzak ikaragarri aldatu dira. Pandemiak mundu osoa kolpatu du eta ez dirudi epe motz-ertainean erabat kontrolpean izango denik. Egoera uste genuena eta nahi genuena baino askoz okerragoa da orain. Hori dela eta, AEKn hobetsi dugu Korrika bezalako ekimena atzeratzea, besteak beste, pandemiaren barruko transmisioa ahalik eta gehien murrizteko. Korrikaren atzerapenak hutsunea sortuko du, baina Korrika bera horren garrantzitsua izanik, beharrezkoagoa da Korrika denok desiratzen ditugun baldintza hobeetan egitea. Une honetan, ez dugu KORRIKAREN ordezkio eskas bat nahi. Izan ere, euskarak bezala, KORRIKAK kalea behar du, bizia, mugimendua. Eta hori errepidera ateratzen direnek ematen digute, kalera

ateratzen direnek. Denbora gehiago hartu nahi dugu, normalitate berria nondik nora joango den ikusteko, etorkizuna hobeki ezagutzeko, eta, ondo bidean, egoera hobetzen bada, denok desiratzen dugun Korrikara iritsiko gara, 2022. urteko udaberrian.

Korrikarik ez izateak, baina, ez gaitu geldiaraziko. Hasteko, uea baliatu nahi dugu martxan den bigarren Euskaraldian parte har dezagun; Belarriprest edo Ahobizi izan gaitezen animatu nahi dugu Korrikazale oro.

Gainera, hartu behar izan dugun erabakiaren ondorioz, kolpe ekonomiko handia pairatuko dugu. Hori dela eta, KORRIKAREN sorreratik, edizio guztietan egiten dugun bezala, azpimarratu nahi dugu ezinbestekoa dela helduen euskaldun-zea bizkortzea eta inbertsioak areagotzea, Euskal Herri osoak behar-beharrezkoa du-eta. Administrazioari dagokionez, euskaltegiei bideratutako baliabideak oraindik ez dira nahikoak, urratsak egin badira ere norabide egokian. Alabaina, egoera ekonomiko zailagoan izango bada ere, berretsi nahi ditugu AEKide guztion konpromisoa eta lana. Oso gogorra izan da atzeratzeko erabakia hartzea, zinez, baina ziur gaude goiari helduko

diogula eta Korrikara inoiz baino indartsuago itzuliko garela.

Bitartean, lanean arituko gara, euskaltegi-tara hurbiltzen ari zaizkigun milaka lagunek eskolak modurik eragingarrienean ikas ditzaten, eta egunero, goizetik gauera, jarraituko dugu mintzapraktika-egitasmoak abian, normalizazio-planak, itzulpen-eta zuzenketa-lanak, hilerok argitaratzen dugun AIZU! Aldizkaria eta abar egiten; lanez lepo ibiliko gara, euskarak toki handiagoa har dezan.

Bidenabar, Euskalgintzako gainerako eragileekin ere elkarlanean segituko dugu 2021 urtean oinarri sendoagoak jar ditugun herri honen euskaldun-ze bidean: "Hizkuntza Gutxituen Protokoloa"ren garapena, "Geroa Euskaratik" dinamika, Hizkuntza Gutxituen XVIII. Nazioarteko Biltzarra...

Amaitzeko, txalotu nahi dugu euskara ikastera hurbildu diren herritarren ahalegina, mintzalagun egitasmoetan daudenak, euskara planarekin dabilzan eragile eta enpresak, AIZU!ko harpidedunak...segi euskaraz bidea egiten, zorianak.

"Herriz herri igaroko gara", kaleetan eta herrietan elkartuko gara berriro.

andoainINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publikitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
WhatsApp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

Aiurri eskuragarri: Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** ERROITZ MUGATUA

ALIATUAK: **NESTOR** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berlitasmerako Zuzendaritza

ZIURTAGARIA: **Bikán**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.**

PROTAGONISTA

"Sortzaileen artean saretzea oso garrantzitsua dela uste dugu"

MADDI ETXEBERRIA BURUNTZALDEAKO GAZTE SORTZAILEAK

Erredakzioa ANDOAIN

Zer dela eta sortu duzue Buruntzaldeako Gazte Sortzaileak taldea?

Itxialdian ekin genion sortze prozesuari, ikusi baikeuen kultura oso beharrezkoa zela eta askotan alboratu egiten zela. Problematika horri jarraiki, eskualdeko hainbat kide batzen hasi ginen itxialdi garaian egin genituen online bileren bitartez, eta, gerora, ateratzen utzi zigutenean aurrez aurreko bilerekin jarraitu genuen. Guztiok gara modu batera edo bestera sortzaileak eta kezka horrekin elkartu ginen. Gauzak horrela, hitz egindako guzti horri forma ematen ahalegindu gara.

Zertarako sortu da taldea? Zein da helburua?

Hiru oinarri nagusi ditu taldeak. Lehenik sorkuntza. Gazte sortzaileen sare bat denez sorkuntzari garrantzi handia eman zaio, bide bat ireki nahi dugu. Bigarrenik, gaztetasunaren edo gazte izatearen problematika erantsi diogu; azken finean, kultura zapaldua izaten ari den arloa bada, gazte izanagatik zapalkuntza hori bikoitza dela pentsatzen baitugu. Azkenik, euskarari berebiziko garrantzi eman



Maddi Etxeberria, ekimenaren aurkezpen ekitaldian. AIURRI



Musika eta antzezpena, eskualdeko sortzaileen ekimenaren aurkezpenean. AIURRI

diogu, gazteok sortutako eduki hori guztia euskaraz izan dadin. Horregatik dira hiru zutabeak, sorkuntza, gazte izatea eta euskara.

Helburuei dagokionez, hainbat ditugu. Batetik, sorkuntza prozesua norbanakoak egiten duenez, sortzaileen artean saretzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Sare bat dugu geure artean babesa edukitzeko. Gainera, geure artean ezagutuz gero proiektu amankomunak sortu daitezke. Pentsatzen dugu, bertako produktuak kontsumitzea ekarriko duela saretzeak. Esaterako, Andoainen Gazte Eguna antolatu nahi ezkeror, antzerki talde bat Arrasatetik ekarri ordez, agian Urnietatik ekar genezake saretzearen bitartez ezagutu dugulako. Kultur problematikari erantzuna emateko tresna gisa erabili nahiko genuke taldea.

Nori zuzendua dago Buruntzaldeako Gazte Sortzaileen taldea?

Euskaraz sortzen duen gazteei zuzenduta dago. Ez dugu zehaztu gazte hitza zer den, norberak sailka dezala bere burua nahi duen bezala. Hernanin egin zen aurkezpenean esan bezala, talde irekia gara, edonork parte hartu dezake eta geure helburua zein

"EUSKARAZ SORTZEN DUEN GAZTEARI ZUZENDUTA DAGO EKIMENA"

den nahiko argi geratu dela uste dut. Geure helburuak partekatzen dituen oro izango da ongi etorria Buruntzaldeako Gazte Sortzaileen taldera. **Oraindik izena eman ez duten sortzaile horiei zer esango zenieke?** Sortzaile horiei animatzeko esango nieke. Ez da beharrezkoa dinamika guztietan parte hartzea, baina interesgarria iruditzen zait datu basean egote hutsa. Azken finean, datu basean dauden sortzaileak ez dira bilera guztietara joaten, ez dute une oro parte hartzen egoteko beharrik. Bakoitzak erabakitzen du zein konpromiso maila duen eta zenbateraino murgildu daitekeen proiektu honetan. Esan bezala, oso interesgarria da datu basean egotea ateari ireki ditzakeelako. Horrez gain, jende berria ezagutzeko baliagarria izan daitekeen taldea da.

Izena emateko interesa duenak buruntza-sortzailea. wixsite.com/buruntzasortzaile webgunean sartu behar du eta edozein zalantza edo iradokizun edukiz gero buruntzasortzaileak@gmail.com posta elektronikora idatz dezake. Webgunean sartuz gero, atal asko daude. Miatu eta egin zaitez sortzaile.

"JENDE BERRIA EZAGUTZEKO BALIAGARRIA DA SORTU DUGUN DINAMIKA"

IKUSBERA
Zenbaki berria prest, eta laster Euskaraldiari buruzko Ikusbera berria!

AIURRIKO HARPIDEDUN IZATEAREN ABANTAILAK



Lahetjuzan, Illaro, Kurutzarri, Etxegarai, Dobaran eta Amonarriz. Asteartean Baionan egin zuten Euskaraldiaren edizio berria aurkezteko prentsaurrekoa. EUSKARALDIA

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaraldiaren izen-ematea martxan da eta ariketa soziala antolatzen ari diren erakundeetako ordezkariak xehetasunak eman zituzten. Baionan egindako agerraldian Euskaraldiaren helburuak gogora ekarri zituzten: parte hartzaileen hizkuntza ohiturak astintzea eta euskaren erabilera handitzea, hain zuzen ere.

Milaka herritarrek bi rol ezagunetan aritzeko aukera izango dute, hilabete barru.

- **Belarriprest:** Beraiei euskaraz hitz egiteko eskatzen dutenak dira belarriprest, euskara ulertzen dute eta beraiekin euskaraz aritzea nahi dute. Ulertzen duten guztiekin ez dute uneoro euskaraz hitz egingo agian, baina ahal eta nahi duten guztietan egingo dute. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.
- **Ahobizi:** Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute ahobiziek. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakienean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; mintzakideak euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko dute beti. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da, jokaerak definitzen du rola, alegia.

Euskaraldia, hilabete barru

Izen-ematea euskaraldia.eus webgunean, Andoingo Kale Nagusian jarri duten bulegoan edo telefonoetarako sortutako aplikazioaren bidez egin daiteke. 16 urtetik gorako herritar guztiei zabalik dago ekimena

Herri gehiagotan, milaka arigune

Bi datu nabarmendu zituzten antolatzaileek, Euskaraldia abiatzeko hilabete falta denean. Batetik, 2018an egin zen lehen edizioan baino udalerrri gehiagotan egingo dela aurtengo Euskaraldia. Guztira 421 udalerritan osatu dira batzordeak.

421 UDALERRIRA ZABALDUKO DA EUSKARALDIA, 2018KO EREMUA HANDITUZ

Bestetik, aurtengo edizioako berrikuntza nagusia den ariguneei dagokionez, Euskal Herri osoan zehar 25.000 arigune baino gehiago sortu direla azpimarratu dute antolatzaileek. Entitatei dagokionez, era guztietako enpresa, saltoki, erakunde eta elkarteak izan dira ariguneei sortu dituztenak.

2018ko edizioan parte hartu duten guztiak berriro ere parte hartzera deitu dituzte. Parte hartzeko baldintzak aurreko edizioko berdinak direla azaldu zuten. Euskaraldian 16 urtetik gorakoek izena eman dezakete, helduen hizkuntza ohitura eta

portaeretan eragitea baitu helburu ekimenak. Euskara ulertzeko gaitasuna gutxienez izan behar dute partaideek, baina hortik aurrera, bakoitzak erabakiko du zein rol den berarentzat egokiena. Hori bai, Azaroaren 20tik abenduaren 4ra dagoen rola eraman txapa jantzita eraman beharko dute.

EUSKARAZ ARITZEKO 25.000 ARIGUNETIK GORA SORTU DIRELA AZPIMARRATU DUTE ANTOLATZAILEEK

Erakundeetako ordezkarien adierazpenak

• **Miren Dobaran**, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea: “Aurten norbanakoen ahaleginaz gain, ariguneei esker, arnagune naturalak eratuko ditugu ariketa sozial hau babes handiagorekin egiteko. Jende askorentzako beste esperientzia positibo bat izatea espero dugu. Urrats hori ematea eta jendea ondo sentitzea behar dugu. Ilusioa behar dugu bizi dugun egoera latz honetan, izan ere, gaixotasuna gorabehera, hizkuntza egunero erabili behar dugu eta esperientzia positiboak eta motibazioa ekarriko ditu Euskaraldiak. Elkarrekin bide hori eginez gozatzea eta elkarri euskara erabiltzeko eremu berriak eskaintzea da helburua.”

• **Amets Lahetjuzan**, Euskal Konfederazioko ordezkaria: “Euskara erabili behar dugu, bere geroa segurtatzeko modu bakarra baita. Biztanleek ikasi eta gero erabili behar dute, transmisioa eta erabilera bereizi ezinak baitira. Hainbat egitura gira, Euskal Konfederazioan, beste elkarteetan, instituzio, zerbitzu publiko eta lantegietan, egunero hortan ari garenak lanean: arlo eta aktibitate desberdinetan, urratsez urrats, zerbitzuak euskaraz eskaintzen, barne funtzionamenduak egokitzen, euskararen erabilpena azkartzeko. Hori guztiak helburu bakarra du: edozein herritarri bere egunerokotasunean, euskaraz bizitzeko aukera ematea”.

• **Kike Amonarriz**, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria: “Herritar eta euskaltzale guztiei inguruko lagunak, senideak edo lankideak aktibatzeke eskatu nahi diegu. Pandemiak zaildu egin digu Euskaraldiaren antolaketa eta guztion laguntza behar dugu Euskal Herriko ahobizi eta belarriprest guztiengana heltzeko. Euskaraldian parte hartzea pandemiari aurre egin nahi diogula, gure komunitatea berrindartu nahi dugula eta oztopoak oztopo Euskal Herri gero eta euskaldunago bat nahi dugula praktikan erakusteko modu bat da”.



Unitate didaktikoan eragile ezberdinek parte hartu dute. Urrian zehar iritsi da ikastetxeetara. TOPAGUNEA

Gaztetxoen ekarpena balio handikoa izango da

Unitate didaktikoak aurkeztu dituzte Euskaraldiaren bigarren edizioan. Urrian zehar iritsiko dira ikastetxe guztietara. Euskaraldia girotu, egitasmoaren kontzeptuak ezagutu eta bigarren edizioaren zabalkundea sustatzea du helburu

Erredakzioa ANDOAIN

Ikastolen Elkartek, Irrien Lagunek eta Gipuzkoako Urtxintxa eskolak prestatu dituzte Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketan euskara lantzeko unitate didaktikoak. Materiala hezkuntza sare osoan erabili ahal izateko utzi dute eskuragarri Euskaraldiko webgunean.

Unitate didaktikoak 3 fasetarako prestatu dira:

- Lehena, Euskaraldia baino lehen (irailtik azaroaren 20ra) burutuko da. Euskaraldia girotu, egitasmoaren kontzeptuak ezagutu eta bigarren edizioaren zabalkundea sustatzea du helburu fase honetarako prestatuko proposamenak.
- Bigarren fasea Euskaraldiak iraun bitartean egingo da (azaroaren 20tik abenduaren 4ra). Euskaraldiaren ariketari eutsi, bidean ager daitezkeen oztopo eta konponbideak aztertu eta hizkuntza-ohituren inguruan

gogoeta aktibatzen diseinatua dago unitate didaktikoaren etapa hau.

- Hirugarren fasea Euskaraldiaren ondoren gauzatuko da, abenduan. Ariketak iraun bitartean biziakoa du oinarri, eta hizkuntza portaera emankorrak sustatzeko jarduerak osatzea du helburu atal honek.

“Euskaradinamizatzaileak”

Unai Arellano Ikastolen elkarteko ordezkariak unitate didaktikoak hauek lantzeko eskoletan irakasle zein ikasle osatutako talde dinamizatzailea osatzea proposatzen du. “Euskaradinamizatzaileak” izena eman diote sustatzaile talde hauei eta unitate didaktikoetan agertzen diren

IKASTETXEETAN EUSKARALDIAREN ALDEKO TALDE DINAMIZATZAILEAK SUSTATUKO DITUZTE

jarduerak bideratzea izango lukete helburu.

Gipuzkoako Urtxintxa eskola-ko koordinatzaile **Maite Asensiok**, bere partetik, hizkuntza praktiken aldaketan haurrek jokatu dezaketen rol aktiboa garrantzitsua dela adierazi zuen.

Irrien lagunak elkarteko **Garazi Urrosolok** adierazi zuenez, ahalegin berezi bat egin dute unitate hauek hezkuntza ez-formalera egokitze, haurrekin modu ludiko eta erakargarrian jarduteko aukera ematen baitu horrek.

Euskararen erabilera bultzatu eta hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin, hezkuntza formalak euskararen garapenean daukan zeregina nabarmendu du **Miren Dobaran** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak.

Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidenteak haur eta gazteei zuzendutako eskaintza duten eragileek izango duten garrantzia azpimarratu zuen.



Gipuzkoako Foru Aldundian egin zuten aurkezpen ekitaldia. ALDUNDIA

Nerabeak Euskaraldian

Lasarte-Orian Euskaraldiaren pareko ekimenak gaztetxoengan izan dezakeen eragina aztertu dute

Erredakzioa ANDOAIN

Eraginkorra al da ahobizi/belarriprest diseinua nerabeen hizkuntza-ohituretan aldaketak eragiteko? galderatik abiatuta liburua osatu dute Lasarte-Orian. Sei erakunde hartu dute 'Nerabeak Euskaraldian' izeneko parte ikerketan: Ttakun kultur elkarteak, Lasarte-Oriako Udalak, Oriarte Institutuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Ebete zerbitzuak.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte Euskaraldia egin zen Euskal Herri osoan, eta horren barruan 11 egun euskaraz ekimena garatu zen. Ahobiziak eta belarriprestak izan ziren egitasmoaren protagonistak. Horiek, ordea, bi urte lehenago sortu ziren Lasarte-Orian. 2016. urtean, 40 egun euskaraz ekimena bideratu zuten eta hor erabili ziren lehenengo aldiz ahobizi eta belarriprest figurak. Baina erabili bakarrik ez; hori izan zen 2018an Euskal Herri osoan Euskaraldiaren ekimena abian jartzeko oinarri nagusietako bat.

2018ko Euskaraldian, Lasarte-Oriak ekimen hori errepikatu bazuen ere, zenbait berrikuntza gehitu zituen, horien artean, nerabeei zuzendutako ikerketakintza bat abiatu zuten. Ikerketa hori liburu bihurtu da orain, eta horren berri eman dute berriki.

Nerabeak Euskaraldian

Euskaraldiaren diseinua zela-eta, hamasei urtetik beherako nerabeek ezin zuten parte hartu egitasmoan, baina aldi berean,

gaztetxo guztiek betetzen dute Euskaraldian parte hartzeko oinarritzko baldintza; euskaraz ulertzea, eta Euskal Herriko bazter guztietan bezala, Lasarte-Orian ere arduratuta daude gaztetxoen arteko euskararen erabilerekin.

Ekimena ez zuten hutsaren gainean eraiki, ordea. Ttakun Elkartearen, institutuaren eta udalaren artean hitzartuta ditzute erabilera sustatzea helburu duten hainbat egitasmo: "Elemeleka" saioak eta "Kuadrillategi", besteak beste. Horiek oinarri hartuta, Euskaraldiaren ekimena egokitu egin zuten adin tarte berriaren ezaugarrietara. Sentsibilizazio-saioak egin zituzten Oriarte institutuko 12-18 urte bitarteko gela guztietan; 33 gela, 741 ikasle.

Emitza nagusiak

- Nerabeen %60k parte hartu zuen, eta lorpenekin gustura ageri da.
- Erabilera eragina izan zuen, bereziki biko harremanetan.
- Ohikoa baino euskara askoz gehiago erabili zutenak %30 izatera iritsi ziren.
- Gazteen iritzi, lorpen berriek iraun egingo dute.
- Nerabeekin Euskaraldiaren lanketa egin daiteke, eragina du eta helduen antzeko ondorioetara iristen dira.
- Hainbat prest daude euskara gehiago erabiltzeko, baita eragile izateko ere.
- Txintxarri.eus eta lasarte-oria.eus webguneetan eskuragarri dago txostena.

"Egoeraren araberako neurriak hartuko ditugu"

SALVA PARADA SD EUSKALDUNA TALDEKO LEHENDAKARIA

FUTBOLA Ez-ohiko egoera honetan baikor agertu da, baina zuhurtziaz eta arduratsu jokatzeko deia zabaldu du Andoaingo klubeko lehendakariak

Mikel Arberas ANDOAIN

Euskaldunako futbol taldeek lehiari ekin diote, gogotsu ikusten dituzue entrenatzaileak eta jokalaririk?

Gogotsu daude, baina baita beldurtuta edo ezjakintasun handiarekin ere. Aurreko astera arte oso ondo ari ginen, kasurik gabe, baina orain egoerak okerrera egin du eta horrek ere Euskalduna taldean eragina eduki du. Jada kasuak agertzen hasi dira, lau talde konfinatuta ditugu; gainera, lan egiteko adinean dauden jokalariek beldurrez daudela adierazi dute. Norbaitek positibo emanez gero, etxean konfinatuta geratu beharko dute, horrek sor ditzakeen ondorioekin. Hala ere, azpimarratu nahi dut, entrenatzaileak eta jokalariek gogotsu entrenatzen eta arduratsu jokatzeko ari direla.

Zer moduz hasi duzue denboraldia? Denboraldi polita dugu aurretik, gizonezkoen taldeak Gipuzkoako maila gorenean jokatzeko ari baitira. Senior taldea ohorezko mailari eusten ahaleginduko da. Hala eta guztiz ere, Covid 19ak asko eragingo du aurtengo denboraldian. Kadete eta jubenil mailako taldeak duela gutxi hasi dira, eta infantilek 2021 urtera arte ezingo dute lehiatu. Emakumezkoetan, berriz, ka-



Salva Parada Euskalduna taldeko lehendakaria. EUSKALDUNA

dete eta senior taldeak daude, eta denboraldi polita egin dezakete. Zorionez, nesken kopurua egonkortzea lortu dugu eta jokalariek berriak etorri dira. Iaz, denboraldi ona egiten ari ziren, baina pandemiak sortutako egoera zela eta, ezin izan zuten mailaz igo. Politia litzateke emakumezkoen futbolari bultzada bat emateko ohorezko mailara igozteak.

Liga bukatzeko aukera egongo ez balitz, zer gertatuko litzateke?

Federazioak lehiaketaren protokoloa atera du. Gutxiengo bat jokatu behar da ligan egindakoa edo lortutakoa balizkoa izateko. Gutxiengo batera iritsiko ez bagina, guztia bertan behera geratuko litzateke.

Neurri zehatzak hartu dira kirol arloan segurtasuna bermatzeko? Zuzendaritzak eta Federazioak protokolo bat bidali ziguten, geure ustez nahiko berandu. Hala ere, Udaleko Kirol Zerbitzuen bitartez jakin genituen

zeintzuk ziren hartu beharreko neurriak; esaterako, segurtasun distantzia mantentzea, kirola egiten ez zenean musukoa jarrita edukitzea, eskuak garbitzea eta jende pilaketak ekiditea. Horrez gain, aldagelen erabilera edota partidatan ikusleak egoteko aukera ematea klub bakoitzaren arabera izango da. Ardura guztiona da eta neurriekin segurtasuna bermatu nahi dugu kirola egiten den bitartean.

Bideragarri ikusten duzue ikusleak Ubitartera bertaratzea?

Buruntzaldea mailan ikuslerik gabeko partidak jokatzeko erabaki zen, egia da ere, herriaren arabera egoera ezberdina dela. Geure kasuan, Larramendi tornean ikusleekin partida jokatzeko baimena eman ziguten; segurtasuna bermatzeko neurri asko hartu eta gero. Partida ofizialetan ere funtzionamendu horrekin jarraitu genuen, eta orain arte ez dugu arazorik eduki. Pentsatzen dugu normaltasunerako bidean aurrerapauso garrantzitsua dela zaleak eta jokalariek senitartekoak ikusle modura bertaratzea, nahiz eta boluntario gisa lanean ari garenontzako zama handia den.

Jokalariek artean kasuak izan dituzue, ez da erraza horrelako zerbait kontrolpean edukitzea...

380 jokalarik osatzen dute Euskalduna taldea. Duela aste batean positiborik ez zegoen, baina aurreko astean lehen kasua eduki genuen, eta domino fitxekin bezala lau taldetara zabaldu zen. Fokoa ez dela kirol arloan sortu, alegia. Egia da, futbola kontaktu estuko kirola ez den arren, jokalariek batek positibo emanez gero talde guztiak egin behar duela PCR proba. Bi partida

bertan behera geratu dira, izan ere jokalariek etxean egon behar dute konfinamendua betetzen.

Nola ikusten duzu kirol ez-profesionala egungo egoeran?

Martxoan guztia bertan behera geratu zenean eta etxean sartu ginenean kirola behar beharrezkoa zela ohartu ginen, batez ere, hurrei eta gazteei begira. Nire ustez ariketa fisikoak onura gehiago ditu, sor ditzakeen arriskuak baino.

Etorkizunari begira nori daki zer jazoko den, ziurgabetasuna handia da. Egoeraren arabera neurriak hartuko dira. Geure esku dagoen guztia egiten saiatuko gara; horrez gain, ulertzen dugu beldurra eta ziurgabetasuna areagotzea. Hori bai, errepikatzen ari gara guztion ardurara dela, gutako bakoitzak ahalik eta zuhurtziaz handienarekin jokatzeko saiatu behar du. Normaltasunaren bidea ireki nahi badugu gauzak modu arduratsuan egin beharko dira.

Gehitu nahiko nuke, bolondresak garela eta hau guztia aparteko lan karga dela. Denbora asko behar izaten dugu partidak, entrenamenduak eta Euskaldunarekin zerikusia duten gauzak antolatzeko. Egunez egun egoera aldatzen doa eta gu adi egoten gara ea Eusko Jaur-laritzak eta Kirol Administrazioak zer esaten duen. Ardura asko ditugu eta zaila da. Beraz, ingurukoek uler gaitzaten nahi dugu.

"ZORIONEZ, NESKEN JOKALARI KOPURUA EGONKORTZEA LORTU DUGU. IAZ BIKAIN ARITU ZIREN"

Denboraldia hasi da

Larunbatean Euskaldunako ohorezko erregional eta jubenil mailakoek ligako partidak jokatu zituzten. Bi taldeek porrot egin zuten Oiartzunen eta Oriokoren aurka, bat eta huts, eta bi eta huts, hurrenez hurren. Zazpi hilabeteren ostean areto futbolari ere ekin zioten Euskaldunakoek Goierriren aurkako lagunarteko partida jokatu (4-4).



Duda putzu batean murgilduta

ESKUBALOIA UKE Senior taldea lehiaketari noiz ekin zain dago, pandemiaren egunerokora moldatzen; pasa den asteburuan ziren hastekoak, baina Legazpik liga utzi eta zain segitzen dute

Andoni Urbistondo URNIETA

Pasa den asteburuan zeukan lehen norgehiagoka UKE senior taldeak, Legazpin. Baina ez zuten partidarik jokatu ahal izan herri hartako klubak lehiaketatik erretiratu eta Ligan jokatzeari uko egin diolako, COVID-19 pandemiagatik. Datorren asteburuan jokatu dute lehen partida Urnietan, Usurbil taldearen aurka. Airean dago partida, Udalak kiroldegia itxia erabaki duelako. Udalak neurriak eten edo indarrean mantentzen dituen jakin arte, zalantza batean egongo dira. Jokalariek euren kabuz saiatuko beharko dute sasoi puntua mantentzen, ezin-go baitute taldeko prestaketarik egin.

Taldeko jokalariek batek positibo eman zuen iraila bukaeran, eta horrek taldearen jardura baldintzatu zuen erabat. Euskadiko Eskubaloi Federazioak, dena den, Ligarekin aurrera egitea erabaki du, eta zortzi taldeko bi multzo sortu ditu. Multzo bakoitzeko lau onenak bigarren fase batera pasako lirateke, iguera fasea jokatzeke, eta multzo bakoitzeko lau azkenak, jaitsiera saihesteko beste multzo batera. Federazioak igorak eta jaitsierak indarrean mantentzen ditu, momentuz. Ez dirudi oso erabaki logikoa, denboraldian gerta daitezkeen gorabeherak gogoan, baina garbi dago federazioari lehiaketa jokatzea interesatzen zaiola.

Partidak bi astez behin jokatzea planteatu du federazioak, alegia urte bukaera bitarte lau partida UKE senior taldearentzat. Eta partida bat Koronabirusagatik atzeratuko balitz, zer? Ez litzaiteke erreperatuko, eta puntu banaketa proportzionala izango litzateke, federazioaren erabakiz. UKE senior taldean 12 lagun dira, justu samar denboraldia modu duinean osatzeko. Lau lagunek atzera egin dute, azken



Senperena eta Rodriguez, artxiboko irudian. UKE

orduan, eta 12 geratu dira. Arauak ezartzen duen gutxiengo kopurua da. Bitor Rodriguez izango da entrenatzailea. Senior taldean solasaldiak izan dituzte, taldea atera edo ez atera, baina aurrera egitea erabaki dute, batez ere bultzaka datozen gazteengatik. Talderik aterako ez balute gazteek ezingo lukete euren urteetako ibilbidea biribildu, senior taldeko kide izan, eta mugak muga, orain behintzat senior taldean jokatzeke aukera izango dute.

Mailari eustearekin konforme

Jokalarien artean ikasleak eta langileak daude, eta ikasleak direnak beste modu batean bizitzen ari dira pandemia. Kutsatuz gero, 15 egun etxean pasa eta kito, baina langileak direnak, aldiz, kutsatu eta 15 egun etxean pasa beharra ez da gozoa. Kirola egiteko baldintzak ere ez dira onak. Urnietan entrenamendua eta gero badakite kiroldegian ez daukatela dutxatzeko aukerarik, baina minutu gutxian etxean daude. Bizkaia eta Araba aldera jokatzerara joan behar duten egunetan, baina, ez dakite dutxatzeko aukera izango

duten edo ez, eta partida jokatu eta gero bizpahiru ordu dutxatu gabe egotea zaila egingo omen zaie. Eta baldintza horietan zein da helburua? Beñat Senperenak dioenez taldea oso justua da, eta mailari eustea arrakasta handia litzateke. 12 lagunekin bakarrik, gerta litezkeen ezustekoak, eta beste taldeek duten maila aintzat hartuta garbi ikusten du egoera: "Gure multzoan azken lau horietatik libratzea ia ezinezkoa ikusten dut, eta jaitsiera saihesteko bigarren fasean ere ikusi egin behar nola gauden, beste taldeak nola dauden, eta pandemia bera nola dagoen".

Oinarri logikorik gabeko lehiaketa


Azken astean gertatutako kronologiari erreposoa egitea baino gauza hobirik ez, lehiaketaren bilakaera zintzilik dagoela berriratzeko. Legazpik Liga utzi du, eta UKEk asteburu honetan ez, hurrengoan egin behar zuen debuta airean dago. Aste honetako lehen erdian kutsatze datuak Urnietan izan duten bilakaerarekin litekeena da kiroldegiko itxiera urriaren 26tik haratago joatea.

Euskal Herriko lehen sega-sail lehiaketa jokatuko da Hernanin

HERRI KIROLAK Henriksen andoaindarrak eta Gabirondo urnietarrak parte hartuko dute, igande honetan



Malou Henriksen. AIURRI



Julen Gabirondo. AIURRI

"POLITA ETA AZKARRA IRUDITZEN ZAIT PROPOSATU DUTEN FORMULA"

MALOU HENRIKSEN

"LAUOK GERRA EMATEKO MODUAN AZALDUKO GARELA ESANGO NUKE"

JULEN GABIRONDO

Xabier Lasa ANDOAIN

Almitza elkarteak antolatuta, belar biltzailerik gabeko sega joko berritzailea jarriko da jokoan, Jauregiko belardian. Igande honetan izango da, eguerdiko 12:00tan hasita. Henriksen zein Gabirondo lan txukuna eginez ikuskizuna eskaintzeko asmoz doaz Hernanira.

Malou Henriksen andoaindarra

Aldrebesa gertatzen ari da denboraldia sega munduan, gainerako kirolen antzera, eta txapelketen gosez diren segalariek ez ezik zaletuek ere izango dute non asetua Hernanin, igandean. Ilusioz gainezka dabil egunotan Malou Henriksen, Sega-sail lehiaketa dela eta. Irati Astondoa, Ainara Otamendi eta Alaitz Imaz izango ditu aurkari Jauregiko belardian. Maila pertsonalean urte berezia gertatzen ari da berarentzat; entrenatzeko denbora askorik ez duela eduki arren, dena emateko prest agertu da. "Apirilaren 30ean Joar jaio zen, eta geroztik, haur zaintza eta lantokiko lanak direla medio, apenas eduki dudana astirik entrenatzeko. Azken asteetan Juan txo (Lopez de Munain) entrenatzailea eta biok Amasako belardi batean aritu gara, sasoi puntu ona lortu nahian. Polita eta azkarra iruditzen zait antolatuta

duten formula, eta aurkariei aurre egiteko prest agertuko naiz".

Julen Gabirondo urnietarra

Ez dago zalantzarik Julen Gabirondok ere gogo biziz helduko diola Hernaniko lehiaketari, eta daukan guztia jarriko duela Iban Pardo, Iñigo Merkader eta Mikel Lizartzari aurre hartzeko. Bigarren geratu zen bai Almitzak uztailan Usurbilen eta Zaldibian antolatu zuen nazioarteko erako sega Ligan, eta baita irailean jokatu zen Euskal pentatloian. Igandean jokoan den txapela Urnietara ekartzeko gogorik ez zaiola faltako, alegia. Hiru aurkari gogor izango dituela aurrez aurre, aitortu du. "Segan indarrak neurtzeko aukera askorik ez dugu eduki aurtengo denboraldian. Baina esango nuke lauok gerra emateko moduan azalduko garela. Kirolari zailduak dira hiru aurkariak. Mikel Lizartzak hiru-lau urte, mutil fina da, zimela, sokatiran neguan fuerte aritzen da eta fisikoki prestatuta agertuko da. Merkaderrengatik ere antzekoa esan daiteke; hori arranean dabil gogor. Iban Pardok, berriz, ondo daki zer den segan lehiatzea; iaz segalarien txapelketa nagusia irabazi zuen, eta irudipena daukat bera izango dudala aurkaririk zailena".



Hitzaldian Garmendia familiako kideak egon ziren. Argazkian: Juanjo Garmendia, Gartzea Zaldua, Luis Mari Zaldua, Imanol Garmendia, Iraitz Garmendia, eta Oier Garmendia. AIURRI

'Antonio Xesterua', Zalduaren eskutik

Luis Mari Zaldua hizkuntzalariak Antonio Garmendia Urnietako azken zesteruari buruzko hitzaldia eskaini zuen Saroben. Zestoak eskuz egiteko aparteko trebezia zeukan urnietarrak

Xabier Lasa URNIETA

Zalduak kronologikoki egitura-tu zuen hitzaldia, eta Urnieta zestogintzan tradizio handiko herria izan zela esanez ekin zion. Horrela, Antonio Garmendia Zestao jaio zenean, 1915ean, hamazazpi familia zenbatu zitezkeen ofizio horrekin lotuta. Nekazal giroko herria zen orduan Urnieta, eta 2.300 biztanlek osa-

tzen zuten; Oria auzoa kanpoan utziz gero, 1.500 biztanle zituen, eta horietatik 400-500 herri kasakoan bizi ziren. Ikusten denez, arrakasta itzeleko ogibidea zen zestogintza Urnietan, belaunaldiz belaunaldi transmititzen zena. Antonio Garmendia 1929an, 13 urterekin lanean hasi zen, aitarekin batera. Orduan familia Pintore etxean bizi zen.

Sasoi hartan, zestoak oraindik ere lan edozein lan jardunetarako ohiko erraminta izaten zela azpimarratu zuen Zalduak: "Gaur egun obretan-eta makinak erabiltzen dira, baina aitzinean dena eskuz egin beharra zegoenean, zestoak zama-lanetarako izaten ziren ohikoak. Antonio adierazi ohi zuen bezala, langileek, kintal kopa izaten zen zestoa eta pika-

txoia hartu, eta aurrera egiten zuten. Baserri edo itsasoko zereginetarako ere zestoak izugarri balio izaten zuen".

Ofizioaren gainbehera, pixkanaka

1958rako saltoa egin zuen Zalduak, segidan. "Antoniok 43 urte zituen, eta lanean sasoi betean ziharduen, baina mundua eta Urnieta aldatzen ari ziren. Sanmiel jaietako esku-programan ustez Lander Etxaniz egilea zuen idatzi poetiko samarrak zesterok Urnietan zeukaten presentzia azaldu gaitzake: "(...) *en breve ya no se oirá en los maravillosos atardeceres de verano, entre la magia de la luz que agoniza tras el Azcorte, la música bien timbrada y extrañamente dulce de unos hombres que cantan llevando el ritmo de la melodía a golpes sordos de machete... mientras sus dedos ágiles trazan cestos de labor*".

1958ko testu horrek, halaber, pixka bat gainbehera zihoan ogibidearen berri ematen digu, Zalduak gaineratu zuenez. "Arrazoiaren artean, gero eta eskari gutxiago edukitzea, industria modernoaren garapena, materiala gero eta garestiagoa, beste

langileek baino ordu gehiago sartu beharra antzeko soldata jasotzeko...".

1979an, Antonio Garmendiak Elixabete Garmendia kazetariari *Zeruko Argia* astekarian eskaini zion elkarrizketan, ogibidea zergatik ari zen desagertzen arrazoi berri bat erantsi zuen. "Lehenago lan guztietarako zestoak erabiltzen ziren, baina gaur plastikoak leku asko jan dio".

Zestogile urnietarrak beste hainbat kontu aitortu zituen aipatu elkarrizketan: semeari erakutsia ziola ofizioa, gaztaina zeparen makilen tona batek 5.000 pezeta (30 bat euro) balio zuela, garaitsu hartan perretxikotarako eta erosketak egiteko esku-zestoa egiten zuela ugari eta Donostiako denda bati 475 pezetatik saltzen zizkiola, 10-12 orduko lanaldiko egun batean lau esku-zesto egiten zituela eta sasoirik onenean, berriz, sei egin izan zituela...

Zesteroaren lan prozesu artetsua

Luis Mari Zaldua 1989an jarri zen harremanetan Garmendiarekin, eta hainbat bideo grabazio egin zizkion, Idiazabal kaleko lantokian lanean ari zela. "Txundituta utzi ninduen, erakutsi zidan guztiarekin". Bideoen irudiez baliatuta, Zalduak Garmendiaren lan prozesuaren inguruko urratsak kontatu zituen Sarobeko hitzaldian: materiala (gaztaina-zeparen makilak) erosi, eta, lantegi kanpo aldean, etxe aurrean airean utzi (egurra bere onera etorri zedin); makilak erdibitzen eta erdibitzen joan zumitzak sortzeko; egurra irekiztea zestoaren egitura osatzeko; eta, errematea.

Lan prozesu guztiak aparteko abiltadeara eskatzen du, eta Zalduak azpimarratu zuenez, Garmendiak hotzean egiten omen zuen zailtasun izugarrikoa den makilak erdibitzeko teknika; "modu tradizionalari eutsi zion beti, nahiz eta azken urtetan gainerako zesterok makilak labean berotu ohi zituzten erdibitzearan lana errazteko".

1990ean, Antonio Garmendiak ez ezik Ergobia auzoan zestogintzan aritzen zen Ju anito Larburuk egindako zestoekin erakusketa antolatu, eta Euskal Herrian zehar erakutsi zuten. Hamar lagunentzako ikastaroa ere antolatu zuten Urnietan, Garmendia irakasle zela.



Antonio Garmendia 'Xesterua', artxiboko irudian. AIURRI

Garmendiak egindako zenbait zesto Foru Aldundiak Irunen daukan Gordailu ondare-biltegiari gordetzen dira, eta Zalduek Sarobera ekarri zituen, bertan ikusgai jarri. Hona Garmendiaren "maisulanak": kintalkopa (50 kiloko neurria, harria garraiatzeko); zestera (emakumeek erabiltzen zutena, buru gainean), Aingira-zestoa (aingirak arrantzatzeko zestoa); zarea (sagarra kizkiaz biltzeko saskia); eta, asto-zestoa (baserriarrek beren trasteak zamatuta eta garraiatzeko).

Euskara zoragarria

Zalduek Garmendiaren inguruan doktore tesia egin zuen urte haietan, eta zestogintzaren ogibide zailaren gora beherak aipatzeaz gain, Garmendiaren euskara zoragarria ere kontuan hartu zuen. "Ondare bikaina utzi zigun euskararen arloan ere. Euskara jatorreko hiztegia, aditzak eta esapideak erabiltzen zituen ugari. Egia esanda, beste bi hitzaldi osatuko nituzke Antoniok hizkuntzarekin zeukan altxorraren gainean!". Hiztegiari dagokionez, adibidez, hitz askori gaur ematen ez zaizkion esanahiak ematen zizkion Garmendiak, Zalduek esanetan. Hona zenbait hitz, Garmendiaren hiztegitik jasoak: belaka (belax-

**URNIETAN,
IRAGANEAN,
ARRAKASTA ITZELEKO
OGIBIDEA IZAN ZEN
ZESTOGINTZA**

Amurizaren bertsoa

Xabier Amurizak honako bertsoa eskaini zion, duela 40 urte inguru:

*Urlia ta berendia
otargile Garmendia
munduan ere
horren pareko
gutxi omen dia.
Adarran egunsentia
hain da artista handia
saski batekin estal lezake
Buruntza mendia.*

ka, biguna); zakatza (sakatsa begi asko dauzkan makila); zirtzilleya (zirtzileria, ezertarako balio ez duten zumitzak); masko(r)(ro)molla: hondoaren eta ehoduraren artean ezarritako zumitzak; igo (ehundu).

Zerabilen hitano forma ere txundigarria omen zen, Zalduek iritzi. "Hika jatorra, aintzinakoa zeukan: niuan, ziu, niayan, zailliyan, zamakiñan, huan, uban, giñun, giñuan... Antoniok ez zuen gaur egun "ke" nahiko baldar horrenik erabiltzen (neoken, zatorreken, nioken, nijoaken...)"

**"ANTONIOK
TXUNDITUTA UTZI
NINDUEN,
ERAKUTSI ZIDAN
GUZTIAREKIN"**

Pribatutasuna pandemia garaian

Urriaren 29rako jardunaldiak antolatu dituzte Donostiako San Telmo Museoa. Izena eman behar da Euskarabildua.eus webgunean. Eskualdetik abiatutako ekimena da

Erredakzioa ANDOAIN

"Datuen izurria. Zer ari da gertatzen gure pribatutasunarekin pandemia garaian?" izenburupean jardunaldiak burutuko dira Donostian. Urriaren 29an izango da, San Telmo Museoa. Betteri-Buruntzako Iametz enpresa da jardunaldiaren antolatzailea, eta haxe da egiten duten hausnarketa: "Teknologia digitalek menderatzen duten munduan, non itxuraz dena gardena den, askotan ez dugu gailuen atzean ezkututzen den logika ikusten. Gu konturatu gabe egunero-egunero datuak sortzen ditugu eta datu horiek kasu gehienetan mundu mailako multinazional handien esku uzten ditugu. Hau horrela da erabilera eremu desberdinetan, bai maila pertsonalean, profesionalean, hezkuntzaren eremuan... Ez daukagu gure datuen gaineko kontrolik eta ez dakigu gure datuak dituzten horiek zer egingo duten datu horiekin, zertarako baliatuko duten Datuen sortzaileak gara, baina ez datu horien burujabeak".

Pandemiak teknologiaren eta pribatutasunaren arteko arazoa muturrera eramane du: "Txina muturreko eredu gisa ageri zaigun arren, herrialde guztiek eduki dute proiekturen bat edo beste teknologiaren bitartez pandemia kontrolatzeko: Singapur, Vietnam, AEB, Italia, Alemania, Israel, Hego Korea, Espainiako eta Fantziako estatuak... Eta asko izan dira neurriak aplikatzearen alde zein kontra agertu diren herritarrak eta erakundeak. Laborategi handi bat izan da pandemia. Uste dugu lehendabizi gaia ulertu egin behar dela eta gure esku egon daitezkeen aukerak ezagutu eta aztertu".

Galdera ugari airean

Besteak beste, honako galderei erantzun nahi die jardunaldiak: Sortzen ditugun datuak zertarako erabiltzen dituzte erraldoi



Jardunaldian parte hartzea irekia da. Izena eman beharra dago. EUSKARABILDUA

"ZER ARI DA GERTATZEN GURE PRIBATUTASUNAREKIN PANDEMIA GARAIAN?"

teknologikoe? Herritarrek zer egin dezakegu datuen kontrol publiko bat lortzeko? Teknologia burujabetzaren ikuspegitik sortu al ditzakegu bide gardenagoak eta demokratikoagoak datuen kudeaketarako? Eta teknologia/aplikazio berriak sortzeko? Hezkuntzak zer paper bete dezake guzti honetan? Zein da hezkuntza eta teknologiaren arteko egoera? eta norantz goaz?

Hizlariak

Kanpoko hiru hizlari izango dira aurtengo Euskarabilduan: Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta Eticas Research & Consulting-eko kide Gemma Galdón, Data Justice Lab-eko kide Javier Sanchez eta Dabne kooperatibako Marga Padilla.

Azkenik, "Teknologia burujabetza hezkuntzan: Gaur egungo panorama, alternatibak eta au-

rrera begirako erronkak' mahai-inguruan Argiako Mikel Garciak, Elgoibarko Makina Erreminta Institutuko Pedro Arreitunandiak eta 'Hezkuntzan ere Librezaletako' kide Diana Francok parte hartuko dute.

Beharrezkoa da izena ematea

Edukiera mugatua izango denez, parte hartu nahi dutenek aurrez izena ematea beharrezkoa da. Izen-ematea guztiz doakoa da; epea irekita dago jada eta www.euskarabildua.eus webgunearen bidez egin daiteke.

Zer da Euskarabildua?

Euskarabildua, euskara eta teknologia elkartzea helburua duen jardunaldi dibulgatzailea da, gizartearen eragin nahi duen ekimen berritzaileentzako hausnarketarako eta zabalkunderako gunea, euskal gizartearen eta euskararen aplikagarriak diren ezagutza eta berrikuntza teknologikoen sustapenerako aukera ematen duena.

Betteri-Buruntzako Argia asteakariak, Ametzagaiñak eta Iametzak elkarlanean antolatzen dituzte 2012az geroztik, jardunaldiak.



Alex Astigarraga, Txus Alonso, Oscar Mendo eta Garikoitz Garagartza. AIURRI

Buruntzaldeko ibilbideen eguna, igande honetan

Bost ibilbideetan zehar murgiltzeko aukera izango da. Aurtengoan, ordea, ez dituzte kontrol guneak jarriko

Erredakzioa URNIETA

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil eta Urnietako udal ordezkariak Buruntzaldeko 13. Ibilbideen Eguna iragarri zuten, Lasarte-Oria antolatutako ekitaldian. Bertan izan ziren, hain zuzen: Txus Alonso Lasarte-Oriako udal zinegotzia, Oscar Mendo Andoaingo udal zinegotzia, Alex Astigarraga Urnietako kirol teknikaria eta Garikoitz Garagartza Usurbilgo kirol teknikaria. Agerraldian azaldu zuten, igandean bost ibilbidetan zehar "hainbat bidezidor eta bide ditugu, landa eremuan barrena gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatzeko eta baserri, baseliza, karobi, eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz".

Aurkezpenenean, Txus Alonsok eta Garikoitz Garagartzak gogorarazi zuten, "herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude. Bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markezten dituzten geziak eta zutoinak. Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude. Lasarte-Oriako erre-zaharra kolorekoa da; Urnieta, berdea; Usurbil, laranja; eta Andoain, urdina".

Pandemia dela medio, izen-ematea internet bidez egin behar da kirolak.buruntzaldea.eus webgunearen bitartez.

Bost ibilbide

Ohi bezala, bost ibilbide izango dira aukeran. Hori bai, aurtengoan ez da mahairik egongo udalerrri bakoitzeko toki jakinetan. Aurtengo edizioari lotutako oroigarriak bihamunean eskuratu ahal izango dira, norberaren herriko kirol instalakuntzatan.

- **Andoain-Lasarte-Oria:** Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. 7,9 kilometroko luzera du; oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Andoain-Urnieta:** 4,8 kilometroko luzera du, oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Andoain-Usurbil:** Andatzatik barrena. 14,9 kilometroko luzera du, oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Lasarte-Oria-Urnieta:** 3,9 kilometroko luzera du, oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga:** 9 kilometroko luzera du. Santuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino, oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

Antolaketa lanetan lau udal-tako kirol zerbitzuez gain, Andatza eta Euskalduna Mendi Elkartek eta Ostadar S.K.T. mendizaleen eta ipar-martxa sailak arituko dira.

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 22

ANDOAIN Lehiaketa

Gazte Lokalak antolatuta, "Gomendatzen dizut... lehiaketa. Zein da zure udako plana? Kontaiguzu!". 70 euroko saria banatuko dute. Parte hartzeko informazio gehiago: gazteinformazio@andoain.eus. Epea: Urriak 31.

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Ondarreta ikastetxeak 50 urte bete ditu eta efemerideari lotutako erakusketa ikusgai dago. Azken eguna urriaren 31.

Bastero Kulturgunea.

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Balerdik Afrikan osatutako bilduma. Txindoki taberna.

ANDOAIN Argazki lehiaketa

Udal egutegia osatzeko lehiaketa martxan. Aurtengo gaia koloreak dira. Informazioa: Andoain.eus.

OSTIRALA 23

HERNANI Jardunaldiak

Eskualdeko Berdintasun sailak antolatuta, "Zaintza lanen demokratizaziorantz" jardunaldiak. "Zaintzak erdigunera" hitzaldia eta eskualdeko zaintza erregimenaren diagnostikoaren aurkezpena. Izen-ematea: 943 590 902. Milagroa, Hernani.

URNIETA Oharra

Iragarrita zegoen ipuin kontaketa saioa. Lekaio. Bertan behera geratu da.

ANDOAIN Antzerkia

"Ave osos" komedia, gaztelaniaz. El mono habitado konpainiaren eskutik. 20:30 Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 24

HERNANI Jardunaldiak

Eskualdeko Berdintasun sailak antolatuta, "Zaintza lanen demokratizaziorantz" jardunaldiak. Mahai-ingurua eta herri eztabaida. Izen-ematea: 943 590 902. Biteri, Hernani.



Ikastaroa iragartzeko afitxa. AXPI

ANDOAIN Gure ondoezak berr-ikusten ikastaroa

"Batzuetan emakumeok txarto sentitzen gara eta ez dakigu ondo zergatik. Edo badakigu baina zaila egiten zaigu jakitea nola jokatu edo zer egin. Gainera, baliteke bizi garen garaiotan gure inguruan gatazka gehiago izatea edo hor zeuden ondoeza batzuk handitu direla sentitzea". Azaroaren 19an hasiko da ikastaroa, 2021eko urtarrilaren 28ra bitarte. Astean behin, Urigainen. Orduetgia: 18:30-20:30. Izen-ematea: andoain.eus; berdintasuna@andoain.eus; 943 300 830.

URNIETA Oharra

"Erradikalak ginen" antzerki eta bertso emanaldia. Sarobe. Bertan behera geratu da.

IGANDEA 25

ESKUALDEA Ordu aldaketa

Europako herrialde gehienekin batera, ordularia neguko ordutegira egokitu beharko ds. 03:00tan 02:00ak izango dira.

ANDOAIN Haur antzerkia

"Hansel eta gretel", Borobil konpainiaren eskutik. Ipuin klasikoa modu dibertigarrian. 17:00 Bastero. 4 euro.

URNIETA Oharra

Puro Relajo taldearen zuzeneko emanaldia. Egape. Bertan behera geratu da.

ESKUALDEA Mendi irteerak

Buruntzaldeko ibilbide gidatuen hamahirugarren edizioa, igande honetan. Kontrolgunerik ez da egongo. Markatuta dauden bost ibilbide daude eskualdean barrena. Informazio gehiago, orrialde honetan agertzen den artikuluan. Eskualdean barrena.

ASTELEHENA 26

ANDOAIN Literatur solasaldia

"Nola heldu naiz ni honaino", Kattalin Miner idazlea bertan izango delarik. Izena eman behar da 943 300 615 telefonora deituta edo liburutegia@andoain.eus e-postara idatzita. 19:00 Bastero. Ekitaldi aretoa.

ASTEARTEA 27

ANDOAIN Tailerra

Udalak eta Aldundiak tailerra antolatuta elkarrekin. Erosotasunik galdu gabe energia eta dirua aurrezteko saio praktikoa dela iragarri dute. Izena eman behar da urriaren 26a baino lehen: 943 300 830 / ingurumena@andoain.eus. 18:30 Bastero Kulturgunea.

ASTEAZKENA 28

ANDOAIN Ipuin kontaketa saioa

"Joxe Moxe kitarraren etxean kontakutakoak", Ixabel Agirresaroberen eskutik. Bi saio eskainiko dituzte. Izena eman behar da 943 300 615 telefono zenbakira deituta. 5-6 urtekoentzat aproposa. 17:00 Udal Liburutegia. 2 saio.



Beterri-Buruntzako kideek agerraldia egin zuten Hernanin, astelehen goizean. AIURRI

'60 urte bidelagunak biltzen', Atzegiren kanpaina berria

60 urtetan zehar elkartearen bidelagun izan diren pertsonak izango dira aurtengo protagonista nagusiak

Erredakzioa ANDOAIN

60 asteetan zehar, astero protagonista bat aurkeztuko du Atzegi bere webgunean. Modu horretan, omenaldia egin nahi diete 60 urtetan zehar elkartearen bidelagun izan diren pertsonen.

Astelehenean aurkeztu zuten Beterri-Buruntzako ordezkariak '60 urte bidelagunak biltzen' izeneko kanpaina. Bidelagunen irudia nabarmendu nahi du; adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko borrokatzen duten pertsona horiek, hain zuzen ere. Atzegi elkartetik adierazi dutenez, "pertsona horiekin lortu dugu gizartea aldatzea, begirada aldatzea, aukerak areagotzea eta azken batean, eskubide asko onartzea".

Bideo-sorta zabala

Urteurrenari keinu eginez, Atzegiren webgunean adimen desgaitasuna duten pertsonak, senideak, boluntarioak edo bestelako bidelagunak beren esperientzia pertsonalak azaltzen agertuko dira. Bideoak eskigitzen ari dira bidelagunak.atzegi.eus webgunean.

Eskualde mailako datuak



Atzegi elkartearekin lotuta duten herrikide asko dago eskualdean. Zenbakiak erreparatuta, hauexek:

- 158 familia.
- 101 pertsona kolaboratzaile.
- 540 atzegizale.
- Atzegiren datu orokorrak:
 - 2.054 familia; 2.140 adimen desgaitasuna duten pertsonak.
 - 2.534 pertsona kolaboratzaile.
 - 10.486 atzegizale.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

HELDUENTZAT

"Explota, explota"

Larunbata, 24.

19:30, 22:15.

Igandea, 25.

19:30.

Astelehena, 26.

19:30, 22:15.

"Verano del 85"

Larunbata, 31.

22:15.

Igandea, 1.

19:30.

Astelehena, 2.

19:30, 22:15.



SINOPSISIA



Explota, explota

Zuzendaria: Nacho Alvarez. **Gidoia:** Woody Allen. **Aktoreak:** Ingrid García Jonsson, Veronica Echegui, Pedro Casablanc, Fernando Tejero, Carlos Hipólito, Ainara Arizu, Ainhoa Aierbe... **Herrialdea:** Espainia (2020). **Generoa:** Komedia, musikala. **Iraupena:** 116 min.

Iraganera begirako musikala

Maria da filmaren protagonista nagusia, Ingrid García-Jonsson aktoreak antzeztan duena. Dantzari gaztea da, sentzuala eta askatasun egarri bizi dena. 70eko hamarkadan

kokatuta, Raffaella Carraren kantuetan harilkatu dute filma. Garai hartako telebista eredu zurruna, zentsura irudikatu dituzte. Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten.

Kultur jarduerak bertan behera utzi dituzte Urnietan

Astebururako iragarritako ekitaldiak aurrerago antolatzeke saiakera iragarri du Urnietako Udalak


Erredakzioa URNIETA

Koronabirusak igoera nabarmena izan du Urnietan, eta hori dela eta Udalak kultur jarduera guztiak bertan behera geratuko zirela iragarri zuen astelehenean. Asteburu honetarako iragarritako

zeuden Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, "Baldin bada" kale antzerki emanaldia, "Erradikalak ginen" bertso eta antzerki emanaldia eta "Puro Relajo" kontzertuak datarik gabe atzeratu dira.

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko hirurretan, ordu biak izango dira.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Patxi eta Ander

Patxi Azkue Amondarain eta Ander Amondarain Portillok urteak bete egin dituzte urrian. 16 urte Patxi eta 5 urte Anderrek. Kroketa ta txorizo egosia earra! Zoragarriak zarete! Txokolatezko muxuk. Etxekoak



ANDOAIN

Irei Artano Zulaika

4 urte bete dituzu dagoeneko. Primeran pasa genuen zure egunean! Segi horrela!!! Muxuak!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 24, igandea 25

Ansa: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 24, igandea 25

Odrozola: Idiazabal, 18.
943 334 014. Urnietan.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.
Ertzaintza: 943 53 88 40.



GIROA & VUELTA

AIURRI.EUS | @aiurri





Auzolanean ateratzen da aurrera egitasmoa. Argazkian bolondres taldea, iaz Ablitasen. ERRIGORA

Kanpaina berria abiatuko da asteburuan

Hemen da, beste urte batez, Errigoraren 'Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka' kanpaina, urteroko tankeran, baina berritasunez beteta. Iaz bezala, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuez osatutako hiru saski eskainiko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Hiru saski eskainiko dira, auzolanari esker, eta jasotakoaren %25 bertako euskalgintzara bideratuko da. Sustatzaileek ohar bidez honako mezua helarazi dute: "19. Korrikaren mezuan Lorea Agirrek zioen bezala, *auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara.* Errigoraren oinarrian dago ekiteko asmo hori. Abiapuntutik, gure ekintzen jabe egiteko bide bat eskaini nahi izan dugu. Auzi guztietan, hala euskararenean nola elikadura-burujaitezarenean, komunitatearen osaketan edo herri-gintzaren jardunean, izan behar lukeena egiten saiatu gara. Nafarroa hegoalde eta erdial-

dearentzat txanda eskatu beharrean, periferia erdigunean jarri dugu. Euskararentzako nahi genukeena eskatuzetik harago, nahi duguna ekartzeko saiakera egin dugu.

Elikadura-burujaitezarako bide definitibo marraztu ordez, geure bidezidorrak zabaldu ditugu. Arduraren aurrean eskuak garbitu beharrean, auzolanean zikindu ditugu. "Egiten duguna gara" dei bat da. Euskal jendar-teari egiten diogun gogoraz-

**AURTENGO
KANPAINAN
KORRIKA ETA SEASKA
ERE DIRUZ
LAGUNDUKO DIRA**

pena. Ekintza txiki batekin kanpaina honetan parte hartzeko gonbidapena, helburu handien bila. Saskiak eskatuta, hauen balioaren %25arekin behar-beharrezko ekarpena egiteko zonaldeko euskalgintzari: Tuterako, Lodosako eta Vianako ikastolei; Erriberako AEK-ri; Sortzenek hezkuntza publikoan D ereduko lerroak zabaldu eta mantentzeko egiten duen lanari eta Ageraldia egitasmo berriari".

Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuez osatutako hiru saski eskainiko dira urriaren 24tik azaroaren 12ra eta, auzolanari esker, jasotakoaren %25 bertako euskalgintzara bideratuko da. Gastronomiaz eta elkartasunaz gozatzeko aukera paregabea da, beraz.



Saski beltza, klasikoa. ERRIGORA

Hiru saski aukeran

Eskaerak eta ordainketak online egin daitezke, errigora.eus web gunean.

- **Saski beltza (50 euro):** oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, kardua, potxak, tomate frijitua, mahats-zukua, botila ardoa, pikillo marmelada, teilak, mertxika almibarretan, piper-mamia. Saski beltza eta Korrikaren katilua eskatuta, 12,50 euroko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari (saskiaren balioaren %25) eta 5 eurokoa AEKri.
- **Saski berdea, ekologikoa (60 euro):** oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, txixirioak, barazki-menestra, pasta, arroza, botila ardoa, ardo-ozpina, udare-zukua. Saski berdea eta Seaskaren egutegia eskatuta, 15 euroko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari eta 5 eurokoa Seaskari.
- **Saski zuria (50 euro):** oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, kiantza, ardo zuri apartsua, patxarana, txokolatzeko zigarretak, patxaran-pastak eta arbendol-polboroiak. Saski zuria eta ereduaren haziak eskatuta, 17,50 euroko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari eta 5 eurokoa Sortzeni.

Nafarroako ekoizleak

Ablitasgo kooperatiba, El Alcaravan (Arguedas), Almanaque (Andosilla), El Agricultor (Lerin), Aristu (Irunberri), Azanza (Abartzuza), Azpea (Irunberri), Biosasun (Dicastillo), La casa del aceite (Cascante), Bardea (San Isidro del Pinar), La Churta (Allo), Ebron (San Adrian), Enara (Arroitz), El Escolar (San Adrian), Gobeiaberrri (Lodosa), Iturri (Arroitz), Larrinaga (Urantzia), Lezaun (Lakar), Maria Jesus (Ablitas), Martinelli (Berriain), Mendiko (Oibar), El Molinero (Arroitz), Monasterio de Cascante, Pedro Luis (Lodosa) eta Urrutia (Uxue).



Saski berdea, ekologikoa. ERRIGORA